

**MISIÓN, VISIÓN Y VALORES. PLAN
ESTRATÉGICO DE ANSOÁIN -
MISIOA, IKUSKERA ETA BALIOAK.
ANTSOAINGO PLAN ESTRATEGIKOA**



AURKIBIDEA

Sarrera	2
Ikuskera	4
Misioa	4
Balioak	5

Sarrera

Ikuskera, Misioa eta Balioak Antsoaino 2024-2030 Plan Estrategikoaren funtsezko zati bat dira; izan ere, 2030ean herrian lortu nahi den aldaketa eta aldaketa hori lortzeko modua zehazten dute. Zehazki, elementu bakoitzak galdera honi erantzuten dio:

IKUSKERAA:

Zer Antsoain nahi dugu 2030ean?

MISIOA:

Zer egingo dugu lortzeko?

BALIOAK:

Zein balioetan oinarritu nahi ditugu prozesu osoa eta 2030eko Antsoain hori?

Antsoaino 2024-2030 Plan Estrategikoa arrakasta izan dezan, funtsezkoa da Ikuskeraren, Misioaren eta Balioen definizioan ahalik eta herriko pertsona, eragile eta kolektibo gehienek parte hartzea, Antsoaino gizarte osoak partekatu eta adostu dezan.

Hori dela eta, planaren atal hau eraikitzeko hainbat bilera antolatu dira gobernantza-ereduaren esparruan, eta horietan iritziak, ikuspegiak eta ikuspuntuak bildu dira, azken emaitzan txertatzeko. Jarraian, atal hau lantzeko egin diren saioak deskribatzen dira:

Gaikako Taldeen lehen bilera.

Urriaren 17an eta 18an antolatu zen 7 Gaikako Taldeen lehen bilera, bi txandatan. Osotara 46 parte-hartzaile bildu ziren (17 gizon eta 29 emakume), udal teknikariak, ordezkari politikoak, herritarrak, kolektiboak eta kanpoko erakunde eta erakundeetako ordezkariak barne. Saio horietan “arazoaren zuhaitza” izeneko teknika baliatuz lan egin zen, gai bakoitzak Antsoainen dituen erronka nagusiak aztertzeko. Guztira, 15 arazo aztertu ziren eta horietako bakoitzaren ikuspegia planteatu zen etorkizunari begira. Informazio hori Antsoaino 2024-2030 Plan Estrategikoaren Ikuskera definitzeko erabili zen.

Talde politikoaren bigarren bilera.

Urriaren 23an Talde Politikoaren bigarren bilera egin zen, udal taldeek parte hartu zutela: guztira 9 lagunek (5 gizon eta 4 emakume). Bilera horretan, Ikuskeraren eta Misioaren proposamena aurkeztu zen, baita adibide gisako balio batzuk ere. Horiei buruz eztabaidatu zen, eta hainbat balio berriak gehitzeko proposamenak ere. Azken horiei lehentasuna eman zitzaion, alde aurretik aurkeztutako adibideekin batera.

Talde Teknikoaren bigarren bilera.

Urriaren 29an, Talde Teknikoaren bigarren bilera egin zen, udal arloetako 10 pertsonen parte hartu zutela (4 gizon eta 6 emakume). Bilera horretan, Ikuskeraren eta Misioaren proposamena aurkeztu ziren, bai eta zenbait balio ere, adibide gisa. Horiei buruz eztabaidatu zen, eta hainbat ñabardura eta ekarpen bildu ziren, baita balio berri batzuk proposatu ere. Horiek lehenetsi ziren emandako adibideekin batera. Gainera, “geroko egun bateko egunkaria” teknikarekin lan egin zen 2030eko Antsoaino ikuskera eraikitzeko.

Foro Sozialaren bigarren bilera.

Urriaren 29an Foro Sozialaren bigarren bilera egin zen, eta 2 pertsonak hartu zuten parte (gizonezko batek eta emakumezko batek). Bilera horretan, Ikuskeraren eta Misioaren proposamena aurkeztu zen, baita adibide gisako balio batzuk ere. Gainera, “Geroko egun bateko egunkaria” teknikarekin lan egin zen, biharko egunkariko teknikarekin lan egin zen 2030eko Antsoaino ikuskera eraikitzeko.

Talde Eragilearen zortzigarren bilera.

Azaroaren 11n, Talde Eragilearen zortzigarren bilera egin zen, eta 4 pertsonak parte hartu zuten (2 gizonezkoek eta 2 emakumezkoek). Bilera horretan, Ikuskeraren, Misioaren eta Balioen azken proposamena aurkeztu zen, eta aztertu, eztabaidatu eta azkenik onartu zen ñabardura txikiren baten ondoren.

Horrela, Antsoaino 2024-2030 Plan Estrategikoaren Ikuskera, Misioa eta Balioak moldatzen eta eraikitzen joan gara, gizarte-adostasuna oinarri hartuta. Ondoren, adostutako azken testuak transkribatzen dira.

Ikuskera.

Antsoain horrelako bat nahi dugu 2030erako:

Herri izpirituari eutsiko diona, herritar guztiek partekatzen duten nortasun komunarekin, pertsonak erdigunean jarriko dituen, haien ongizatea eta osasuna sustatuko dituen eta pertsonak eta planeta zaintzea erraztuko duena. Kultura-, sexu- eta genero-identitate guztiak, hizkuntza-aniztasuna eta bizitza-estilo guztiak errespetatuko dituen herria, desberdintasunik gabe, gizarte-kohesio sendoarekin eta euskararen erabilera zabalagoarekin. Bizi-kalitate handiko Antsoain bat, zerbitzu publiko eraginkor eta irisgarriekin, berdeguneekin, espazio publikoekin eta azpiegiturekin, sare komunitarioa eta zaintzak ahalbidetzeko eta babesteko. Belaunaldi berrientzako eta kolektibo zaurgarrientzako etxebizitza-aukerek, mugikortasun jasangarri eta erresilientzia klimatikoarekin.

Misioa.

IKUSKERA hau lortzeko, Antsoainek hiri-plangintza estrategiko prozesu bat bultzatuko du, eta hori bat etorriko da 2030 Agendarekin, Garapen Jasangarriko Helburuekin, Espainiako Hiri Agendarekin eta Europako Bauhaus Berriarekin. Prozesu horrek modu aktibo batez integratuko ditu Antsoaino herritar, kolektibo eta eragile guztiak, haien ahotsak etengabe entzunez, adi egonez eta Ikuskera pedagogiko eta eraldatzaile batez.

Gobernu onaren, parte-hartze publikoaren, gardentasunaren eta objektibotasunaren printzipioetan oinarrituta, Antsoaino 2024-2030 Plan Estrategikoak Udalaren, herritarren eta gizarte-eragileen arteko harreman berri bat sustatuko du. Horrela, udal-administrazioak komunitateari lagunduko dio garapen soziokomunitarioaren eta udalerriko kapital sozialaren sustatzaile nagusia izanik, kudeaketa, gobernantza eta lankidetzarako modu berriak elkarrekin aztertuko.

Balioak.

1. Berdintasuna eta ekitatea:

Genero-berdintasuna eta ekitatea plan honen printzipio ukaezinak dira, eta pertsona guztiek, beren generoa, jatorria edo egoera sozioekonomikoa edozein dela ere, aukera eta baldintza berberak izanen dituztela ziurtatzen du. Edozein bazterketa motaren aurkako borroka – sexuala, arrazakoa, kulturala edo sozioekonomikoa – funtsezkoa da plangintza- eta gauzatzeko-prozesuaren etapa bakoitzean.

2. Komunitatea, Nortasuna eta Kultura:

Tokiko nortasuna eta bertako kide izatearen sentimendua sustatzea, komunitate solidario baten bidez eta elkarri lagunduz. Antsoainen elkarrekin bizi diren kultura askotarikoen arteko loturak eta horiek sendotzeko harreman sozialak balioesten dira, eta belaunaldien arteko bizikidetza sustatzen da, bizikizikloaren etapa guztietako premiei erantzunez: haurtzarora, gazteria, heldutasuna, aitasuna/amatasuna eta hirugarren adina.

3. Gizarteratzea eta irisgarritasuna:

Planak lehentasuna ematen dio pertsona guztien inklusioari, edozein dela bere generoa, etnia edo gizarte-egoera. Guztiek bete-betean parte hartu ahaliko duten komunitate bat nahi da, irisgarritasun unibertsala bermatuz, desgaitasun fisikoa edo intelektuala duten pertsonak ere aukera-berdintasuna eta espazio eta zerbitzu guztietarako sarbidea izan dezaten.

4. Herritarren parte-hartzea eta lankidetzak:

Erabakiak hartzeko tenorean modu demokratikoz parte hartuko duen herritartasun aktiboa sustatzea, tokiko hauteskundeetatik harago. Balio horrek herritarren, administrazio publikoaren eta gizarte-eragileen arteko lankidetzak azpimarratzen du, gobernantza partekatu eta arduratsuen kultura eraikiz.

5. Erresilientzia eta Ingurumenaren Jasangarritasuna:

Krisien eta aldaketen aurrean egokitzeko gaitasuna sustatzea, batez ere larrialdi klimatikoaren aurrean, eta giza jardueren ingurumen-inkaktuak murriztea. Jasangarritasuna baliabide naturalen erabilera arduratsua da, egungo eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta bizi-kalitatea bermatuz.

6. Gardentasuna:

Erabakiak hartzeko prozesuaren argitasuna eta irekitasuna funtsezkoak dira herritarren konfiantza bermatzeko. Administrazioak konpromisoa hartzen du prozesu estrategikoaren fase bakoitzari buruzko informazio eskuragarria eta ulergarria emateko, konfiantzazko ingurunea sustatuz eta kontuak emanez.

7. Akordioa eta Adostasuna:

Akordioak bilatzea eta adostasunak eraikitzea zutabeak dira plan inklusibo eta ordezkatzailerik bat lortzeko. Balio horrek eragile guztiekin batera lan egitearen garrantzia nabarmentzen du, Plan Estrategikoa komunitate osoaren kezkek eta nahiak bilduko dituen Ikuskera partekatu baten emaitza izan dela ziurtatuz.